Bestelako Xedapenak

**JUSTIZIA
ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA**

627

AGINDUA, 2010eko abenduaren 14koa, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, Baserri Antzoki Fundazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko dena.

Aztertu dugu Derioko (Bizkaia) Baserri Antzoki Fundazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko eskaeraren espedientea, ondorengoetan oinarrituta:

AURREKARIAK

Lehenengoa.– «Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea» eta Lezamako «Totoan Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa» pertsona juridikoek «Baserri Antzoki Fundazioa» eratu zuten, Bilbon, 2010eko ekainaren 28an, Bilboko Andrés María Urrutia Badiola notario jaunaren aurrean egiletsitako eskritura publikoaren bidez (protokolo-zenbakia: 1064).

Bigarrena.– Hona Baserri Antzoki Fundazioaren helburuak, Estatuetako 3. artikuluak ezarritakoaren arabera:

«Baserri Antzoki Fundazioaren helburu nagusia honako hau da: Txorierrin euskara eta euskal kultura sustatzea, bultzatzea eta indartzea.

Helburu nagusi hau lortzeko ekintza lerro nagusiak honako hauek izango dira: Txorierrin euskal giroa berpiztea, kultur ekintza euskaldunak bultzatzea, euskal elkarte eta euskaltzale guztien indarrak batzea, eta euskararen erabilera sendotzea eta areagotzea.

Helburuok bete ahal izateko, indarrean dauden legeek ezarritakoa jagonez, ondorengo ekintzak burutu ahal izango dira: kultura, kirola, folklore, turismo, gastronomia, dibulgazio eta jolas-ekintzak.

Gainera, helburuak betetzeko honako ekintza espezifikoak martxan jarriko dira: edozein jarduera ekonomiko garatu eta baliabideak pilatu; edozein motatako eta izeneko ondasunen jabe izan edo erosi, baita edozein motatako ekitaldi eratu edo kontratu sinatu ere eta legedian esaten dena eta Estatutuotan dagoena jagonez, edozein motatako ekintza aurrera eraman».

Hirugarrena.– Fundazioaren helbidea, Estatuetako 5. artikuluan ezarritakoaren arabera, Derion (Bizkaia) egongo da, eta hau izango da: Talleri kalea 6 zenbakia.

Otras Disposiciones

**DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA**

627

ORDEN de 14 de diciembre de 2010, de la Consejera de Justicia y Administración Pública, por la que se inscribe en el Registro de Fundaciones del País Vasco la denominada Baserri Antzoki Fundazioa.

Visto el expediente por el que se solicita la inscripción en el Registro de Fundaciones del País Vasco de la denominada Baserri Antzoki Fundazioa de Derio (Bizkaia), sobre la base de los siguientes

ANTECEDENTES DE HECHO

Primero.– La Fundación Baserri Antzoki fue constituida en Bilbao, por las personas jurídicas «Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea» y «Totoan Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa» de Lezama, mediante escritura pública otorgada el 28 de junio de 2010, ante el notario de Bilbao D. Andrés María Urrutia Badiola, número 1064 de su protocolo.

Segundo.– El fin fundacional de la denominada Baserri Antzoki Fundazioa viene establecido en el artículo 3 de su norma estatutaria:

«La Fundación Baserri Antzokia tiene como finalidad principal promover, impulsar y fortalecer el euskera y la cultura vasca en el Txorierri.

Estas son sus líneas de actuación principales para conseguir su fin principal: reavivar el ambiente euskaldun en el Txorierri, impulsar actividades culturales vascas, unir las fuerzas de todas las asociaciones vascas y vascófilas y fortalecer e intensificar el uso del euskera.

Para cumplir dichos objetivos, se podrán realizar actividades culturales, deportivas, folclóricas, turísticas, gastronómicas, divulgativas y de ocio, cumpliendo siempre lo establecido en las leyes vigentes.

Además, para cumplir los objetivos, se pondrán en marcha las siguientes actividades específicas: desarrollar cualquier actividad económica y de acumulación de recursos; ser propietario o adquirir cualquier tipo de propiedad, organizar cualquier actividad o firmar contratos y realizar cualquier tipo de actividad, siempre cumpliendo lo que está establecido en la legislación y en los estatutos».

Tercero.– El domicilio fundacional, conforme dispone el artículo 5 de los Estatutos fundacionales, queda fijado en la calle Talleri, n.º 6 de Derio (Bizkaia).

Laugarrena.– Hasierako dotazioa hogeita hamar mila eta bat (30.001) eurokoa da, eta diru hori jarri dela agiri bidez egiaztatu da fundazioa erregistroan inskribatzeko espedientean, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuko 37. artikuluarekin bat etorriz.

Ondare-dotazioa egokitzat eta nahikotzat jotzen da fundazioaren helburuak betetzeko, aplikatzekoa den Fundazioei buruzko abenduaren 26ko 50/2002 Legeko 12.1 artikuluaren arabera, eta azken xedapenetako 1.ari jarraiki.

Bosgarrena.– Fundazioa gobernatzea, administratzea eta ordezkatzea Patronatuari utzi zaizkio. Patronatuko kideek dohainik beteko dituzte beren egitekoak, fundazioaren Estatutuetako 11. artikuluan jartzen duen moduan.

Seigarrena.– Ondorengo hauek osatuko dute hasierako Patronatua, fundazioaren eratze-eskrituran ezartzen den moduan:

Lehendakaria	Luis Javier Goienetxe Bereziartua jauna, Totoan Txorierriko Euskara Elkartearen izenean
Lehendakariordea	Aitor Badaya Aparicio jauna, Txorierriko Mankomunitatearen izenean
Idazkaria	Juan Luis Goikoetxea Arrieta jauna, Totoan Txorierriko Euskara Elkartearen izenean
Diruzaina	José Gabriel Etxebarria Zamakona, Totoan Txorierriko Euskara Elkartearen izenean
Kidea	Borja González Bilbao jauna, Totoan Txorierriko Euskara Elkartearen izenean
Kidea	Zuriñe Argatxa Begoña andrea, Txorierriko Mankomunitatearen izenean
Kidea	Joseba Iñaki Astorkiza Iruretagoiena jauna, Totoan Txorierriko Euskara Elkartearen izenean

Guztiek onartu dituzte beren karguak, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 12.1 artikuluaren arabera onartu ere.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari dagokio fundazioaren eraketa inskribatzeko espedientea agindu bidez ebaztea, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 40. artikuluan, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 100/2007 Dekre-

Cuarto.– La dotación inicial asciende a la cantidad de treinta mil un (30.001) euros, cuyo desembolso ha quedado acreditado documentalmente en el expediente de inscripción registral, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 37 del Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 101/2007, de 19 de junio.

La dotación patrimonial se acredita como adecuada y suficiente para el cumplimiento de los fines fundacionales, de acuerdo con el artículo 12.1 de la Ley 50/2002, de 26 de diciembre, de Fundaciones, de aplicación en virtud de su Disposición Final 1.ª.

Quinto.– Las labores de dirección, administración y representación de la fundación corresponderán al Patronato. Los miembros del Patronato cumplirán sus funciones de forma gratuita, de acuerdo a lo establecido en el artículo 11 de los estatutos de la Fundación.

Sexto.– El Patronato inicial, conforme se establece en la escritura de constitución fundacional, estará integrado por:

Presidente	D. Luis Javier Goienetxe Bereziartua, en representación de Totoan Txorierriko Euskara Elkartea.
Vicepresidente	D. Aitor Badaya Aparicio, en representación de Txorierriko Mankomunitatea.
Secretario	D. Juan Luis Goikoetxea Arrieta, en representación de Totoan Txorierriko Euskara Elkartea.
Tesorero	D. José Gabriel Etxebarria Zamakona, en representación de Totoan Txorierriko Euskara Elkartea.
Miembro	D. Borja González Bilbao, en representación de Totoan Txorierriko Euskara Elkartea.
Miembro	Dña. Zuriñe Argatxa Begoña, en representación de Txorierriko Mankomunitatea.
Miembro	D. Joseba Iñaki Astorkiza Iruretagoiena, en representación de Totoan Txorierriko Euskara Elkartea.

Todos y cada una de ellos han aceptado sus respectivos cargos conforme a las formas previstas en el artículo 12.1 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco.

FUNDAMENTOS JURÍDICOS

Primero.– Corresponde a la Consejera de Justicia y Administración Pública, mediante Orden, la resolución del expediente de inscripción de constitución de la Fundación, en virtud de lo dispuesto en el artículo 40 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco; el artículo 4 del Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, aprobado

tuaren 4. artikuluan eta Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuaren 4. artikuluan agindutakoaren arabera.

Bigarrena.– Eskumena daukan pertsona batek abiarazi du espediente hau. Espedienteari, bestalde, funtsezkotzat jotzen diren datu eta agiriak erantsi zaizkio, eta bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 6., 7. eta 9. artikuluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 36. artikuluan eta ondorengoetan agindutako baldintzak bete dira.

Kontuan hartuz indarrean dagoen Konstituzioa, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretua eta aplikagarri diren gainerako arau orokorrak,

Justizia eta Herri Administrazioko sailburuak hauxe

EBATZI DU:

Lehenengoa.– Derioko (Bizkaia) Baserri Antzoki Fundazioa eta Patronatuaren hasierako osaera Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan gaurko datarekin eta F-285 zenbakiarekin inskribatzeko agintzea. Patronatuko kideak seigarren aurrekarian aipatzen dira eta guztiek espresuki onartu dituzte beren karguak.

Bigarrena.– Fundazio hori bere helburuekin bat datorren Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroko 3. sekzioan inskribatzea, kultura, gazteria eta kirolen fundazioen sekzioan hain zuzen, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 2. artikuluan ezarritakoari jarraiki.

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Agindu hau azkena da administrazio-bidean. Bere aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari, hilabeteko epean, jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera; edo bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Euskal Au-

por el Decreto 100/2007, de 19 de junio; y el artículo 4 del Decreto 472/2009, de 28 de agosto, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Justicia y Administración Pública.

Segundo.– El presente expediente ha sido promovido por persona legitimada para ello, y al mismo se han aportado cuantos datos y documentos se consideran esenciales, cumpliéndose especialmente los requisitos señalados en los artículos 6, 7 y 9 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco, y 36 y siguientes del Decreto 101/2007, de 19 de junio, que aprueba el Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco.

Vistos la Constitución vigente, el Estatuto de Autonomía del País Vasco, la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco, el Decreto 100/2007, de 19 de junio, por el que se aprueba el Reglamento del Protectorado de Fundaciones de País Vasco, el Decreto 101/2007, de 19 de junio, por el que se aprueba el Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, y demás normas de general y pertinente aplicación.

La Consejera de Justicia y Administración Pública,

RESUELVE:

Primero.– Ordenar la inscripción en el Registro de Fundaciones del País Vasco, con esta fecha y bajo el número de registro F-285, de la constitución de la denominada Baserri Antzoki Fundazioa de Derio (Bizkaia), así como de la composición inicial del Patronato integrado por los miembros que figuran en el antecedente sexto, quienes han aceptado expresamente sus cargos.

Segundo.– Clasificar a dicha Fundación, en virtud de sus fines, en la Sección 3.ª del Registro de Fundaciones del País Vasco, relativa a las fundaciones culturales, juveniles y deportivas, conforme lo dispuesto en el artículo 2 del Decreto 101/2007, de 19 de junio, por el que se aprueba el Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco.

Tercero.– Acordar la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

Esta orden agota la vía administrativa. Contra la misma cabrá interponer recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Justicia y Administración Pública, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación, o recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso del Tri-

tonomia Erkideko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, hilabete biko epean, jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko abenduaren 14a.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.

bunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.

En Vitoria-Gasteiz, a 14 de diciembre de 2010.

La Consejera de Justicia y Administración Pública,
IDOIA MENDIA CUEVA.